

Bihartik aurrera eman ahal izango da izena GOFeko Enplegu Publikoaren Eskaintza berrian parte hartzeko

Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 26a izango da

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 6a. Bihar, hilak 7, irekiko da epea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) deitutako enplegu publikoaren eskaintzan parte hartzeko izena emateko. 101 plaza eskainiko dira. Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 26a izango da.

101 plaza horien hautaketa prozesuak 2018., 2019. eta 2020. urteetan deitutako eskaintza publikoei dagozkie. Horietatik 42 plaza gizarte langileen kategoriakoak dira, 38 desgaitasuna dutenen monitoreen kategoriakoak eta gainerako 21ak psikologoaren kategoriakoak. Haiek guztiak profesionalenak dira eta aldundiaren gizarte zerbitzuen erabiltzaileei zuzeneko arreta eskainiko diete.

Gaur argitaratu du Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) deialdiaren iragarkia. Hautaketa prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak bihar hasi eta 20 egun natural izango dituzte kasuan kasuko eskaera aurkezteko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atariaren (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) bidez aurkeztuko dira eskaerak. Eskaerak dagokion tasaren ordainketa telematikoa hartzen du barne.

Hatz marka digitala

Deialdi honek badu berrikuntza bat, probetan izangaien identifikazioan eragina duena eta probak bizkorrago egitea helburu duena. Epaimahai kalifikatzaileak adierazitako epean, eta probak egin aurretik, izangai bakoitzak Gizarte Ongizateko Foru Erakundera joko du bere hatz marka digitala har dakion.

Izapide hori betetzetik salbuetsita daude lehendik GOFEn lanean aritzeagatik hatz marka digitala erregistratuta duten hautagaiak. Hatz marka izango da hautaketa prozesu osoan zehar identifikatzeko eta sartzeko baliabidea.